

# JAKES BELAKOAREN ERRAN ZAHARRAK ETA FILOSOFIA

Durango, 1996-XII-06

Txomin Peillen

## Idazlea

Jakes Belakoa, bere eskuidazkian irakurtzen denez, 1586ko otsailaren 15ean sortua —1667ko maiatzaren 25.an hil zen. XVII.mendeko zuberotar jakintsuna eta lege gizona zen. Bere izenaren jatorria Biarnoko nekazari etxe aberats batena zen, ez Belez de Medrano sasi-arbaso noble batena. Askotan Jean Philippe bere birilobarekin nahasten dute, azken hau, bai aitonen seme izan baitzen, eta Jakes zaharra noble berria, Soruetako etxearen erospenez. Legeetan doktore Jakes Isaak aita protestante baten seme higanauta genuen eta bere anaia batzuen alderantziz ez zuen bere sinesteari amoreman.

Bere beste obrak zuzenbidezkoak dituzu gehienbat hala nola Zuberoako Foruari iruzkina, “*Commentaires à la coutume de Soule*” argitara gabea, baina guri jakingarriena zaiguna osorik sekulan argitaratu ez den “**Tablettes du sieur de Bela**” izeneko liburua da eta ez “Tablettes” aintizek gaizki idatzi bezala. Idazki horrek hirur mila bat orrialde dituelako eta hamaseigarren mendeko frantses zaharkitu batean idatzia delako, iñor ez da ausartu argitara ematera.

Lan hori bere garaiko filosofia, lege, erlijio, politika, sendakuntza, sukalgintza eta kondairari buruzko, gogoeta, iritzi bilduma dizugu. Entziklopedia hori A hizkitik Z-raino hedatzen zuzun. Mitxelenak “*silva de varias lecciones*” bezala izendatu zuen. Idazki hori alde askotatik zirikagarria genikezu, lehenik egilea higanauta edo protestantea delako, bigarrenik euskalduna delako, hirugarrenik bere iritzien azaltzeko hizkuntza ugari darabiltzalako eta horien artean batikbat euskara.

## Eskuidazkiaren gorabeherak

Mitxelenak idatzi zuen Jakes Belakoak idatzi hiztegi eta gramatika galdu direla. Eta 1896.an sei liburutatik **bost** ez omen zituen eskuen artean CLEMENT-SIMON-ek eta eskaz zena F-L. alea zen hain zuzen gramatika eta hizkuntza zeukatenak. Nire susmoa da haren biriloba Jona-Felipe Belako zaldunak

eskuen artean eduki zuenean, ale hori baztertu zuela, "Histoire des Basques" eskuidazkian agertzen den hiztegi poliglotoaren eta gramatikaren idazteko. Izan ere lehen alearen barruan biriloba horren orrialde osoa dago frantsesez esateko zer atseginekin eta zer erreserbekin irakurri duen biraitonaren lana, gure generalak, 1741ko uztailan.

"Moy Jeanne Philippe de Bela lieutenant-colonel de dragons Je me suis recréé par la lecture de ce manuscrit de mon bisaïeul dont la diversité des matières qu'il y a traitées et l'art avec lequel il les a arrangés ont beaucoup contribué à dissiper de mon esprit les peines immenses et les travaux infinis que j'ai souffert dans mon maitier (...) ne perdant cependant jamais de vue que dans bien des endroits cet ouvrage fut suggéré par le démon du calvinisme dont il était malheureusement infesté et qu'il a plu à la divine providence de ne pas faire passer jusqu'à nous à Mauléon. Ce mois de juillet 1741 qui est la trente et unième année de mon âge.

"Ni Joana (sic) Felipe Belakoa dragoietan teniente koronela nire biraitonaren eskuidazki irakurketaz poztu naiz ezen erabili dituen gaien ugaritasunak eta antolatzekeo jarri duen antzeak lagundu naute, nire ofizioan jasan ditudan neke baztergabeen eta oiñaze latzgarrien, nire gogotik ohiltzen (...) sekulan bixtatik galdu gabe leku askotan, obra hori kutsatua zeukatela kalbinismoaren demonioek eta jainkoren zaingoari laket izan zaiola Maule honetan sar etzedin (1741.eko uztaila honetan).

Bai bere kontzeptuen argitzeko erran zaharrak erabiltzen ditu Jakes Belakoak, itzultzen, iruzkintzen eta euskarazkoekin batean, gaztelaniazkoak, italiarazkoak, latinezkoak, grekerazkoak, hebraiarazkoak, okzitanierazkoak eta abar datoz. Beraz europar pentsamendu baten uzta genuke, hor.

Jakes Belakoaren azken askazia XIX mende azkenean andere bat izan zen, Gustave CLEMENT-SIMON izeneko jakintsun batekin ezkondu zena. Senar horrek ez zekien euskararik, eta ahal bezala irakurrita eta alegia P. Proverbes izenburupean bildurik eman zituen erran zaharrak, denak batean izan bailiran.

Zoritxarrez erran zahar guztiak ez zituen bildu ez eta zer orrialdeetan zeuden idatzi, orozgain ez bildu, egileak aurretik edota ondotik eman ohar, itzulpen, balorepenak. Gainera ez zigun esan zer kapitulutan eta zer gaiekin erabili zituen atsotiz horiek. Frantses jakitun horrek argitaratu liburuak izen hau dakar *L'érudition au Pays Basque au XVIIIème siècle*. (Un gentilhomme protestant Jacques de Bela), Paris, 1896 Aurretik Paueko Bulletin des Sciences Lettres et Arts delakoak, bi urteez argitara eman zituen testu horiek (1894-1895). Lan eskaza izan arren liburu hortan agertzen dira geroztik galdu diren atsotitzak.

Zerrenda hori Luis Michelena-k *Textos arcaicos* delakoetan eman zuen Konturatu zen gaizki irakurriak izan zirela eta zuzenketa batzuk jarri; gehienetan leku onean jo du, baita pentsatzean Belak bokal sudurkariak gisa batez edo bestez idazten zituela, ezen CLEMENT-SIMON-ek ezpaititu azentuak

errespetatu ere. Mitxelenak uste zuen gisa batez edo bestez jatorrizko “Tabletes” delakoak galduak zirela eta zion:

“El editor poseía cinco de los seis tomos de que se componía la obra, pero, por desgracia, desconocemos su paradero actual y nadie parece haber dedicado su atención al caso desde la fecha de esta publicación (1986). Algunas dudas que quedan podrían haber sido resueltas, si Clément-Simon hubiera incluido siempre el contexto francés y los paralelos en otras lenguas” (L. Michelena, *Textos arcaicos vascos*, Madrid, Ed. Minotauro, 1970, 186. orrialdean).

Neronek atsoz horiek-hartan fidaturik, -baina euskararen aldetik zuzendurik argitaratu nituen zubererazko bulgarizazio liburu batean *Zuberoako itzalargiak*; geroztik Paueko kopian begia sarturik konturatu naiz, batetik erran zaharrak obra guztian sakabanatuak daudela, bestetik itzuliak direla eta azkenik erabiltzaileak iruzkintzen dituela bere iritzien bermatzeko eta zehazteko, beraz nahiz Oihenartek baino gutxiago eman beharbada, harek baino sakonkiago erabili dituela entziklopedia bati lotuz.

Komeni liteke norbaitek tesia egin dezan liburu osoaren argitaratzeko. Narfar bat abiatu zen hortan eta lagun bati utzi omen zion gaia, baina badirudi elorritz estalitako makila iñork ez duela hartu nahi.

CLEMENT-SIMON-en ondokoek Paueko Artxiboari obra utzi zutenean badirudi, lau baizik ez zituztela eman Nekialarik liburutegi gehienetan legez, lapurketak gertatzen direla, Baionako fakultateari erosarazi nizkion, mikrofilmek eta eginarazi mikrofitxak, gelditzen zena, salba zedin. Beraz lau liburukiekin lan egin dut, bitartean, F-L ez gainerik L-Of delakoa galdu baita. Beraz banekien aurretik liburu hartan agertzen diren atsoz guztiak ez nituela aurkituko baina ikusiko dugunez frantsesak ikusi ez zituen beste horrenbeste aurkitu ditut.

**Idea orokorrak** Batzutan erranik izan da eta Desplat frantses historilariak —euskara ez dakialarik— idatzi digu goi kultura baten eredu dela, euskal kulturarekin hautsi duena, eta ez zela bi kulturen artekoa, ezen pauetarraren go-goan euskal kultura artzainarena baizik ezpailiteke Nola liteke honela euskal atsozizak darabiltzalarik, eta bestalde euskaldun izatea eta kultura gorapetzen?

“Dans la force des noms certaine langue représente les qualités et les perfections des choses: ainsi aussy que le fait la langue basque” (Lehen tomoan, R.I. 347 orrian ezker).

«Beste hizkuntza batek izenean indarrean gauzen betetasuna eta kalitateak erakusten ditu halan ere egiten duelarik euskarak (Itzultzen dut)».

Euskarari ematen dion garrantzia ezta hortan gelditzen. Ez Desplat-ek esan idazle bat, baina bi darabiltza, euskaraz. Bela-k orrialde —nahiz higanauta izan— Etxeberri Ziburukoaren *Manual debozinezko* tik orrialde osoak hartzen ditu, maiz itzuli gabe. Axularen *Gero* tik hartuak bai itzulirik ematen ditu. Hori

ezpaitzen nire gaia bazter utzi dut, atsotitzekin mugatzeko. Halere erran behar dut, —haren bibliografia osoa ematen ezpadut ere— gerla aipatzen duenean español iturriak dituela, jasotzen, teologian frantsesak eta jesuitak haien artean, historian aita Moret eta Olhagaray baina Oihenarte ez. Euskaraz aipamenak darabiltza, aszetikazkoetan, eta guri jakingarri zaizkigun atsotitzak psikologia eta gizarte gaietan.

Naski euskalherritarrak, populua, gogorki eta begi zorrotzez kritikatzten ditu, baina aberatsak eta aitonen semeak ere. Bai garaiko topikoak iruten dituelarik ez lirudike ararteko denik:

“Le peuple est un corps malade... le pauvre est l'écume de la ville, le rebut de la rue, l'âne du puissant” (R3, 191.orr.).

«Herri xehea gorputz eria da... behartsua hiriaren apar zikina da, kalearen zaborra, boteretsuen astoa”.

Baina ideia horiek ez tirade jende maila batena, protestanteen moralarekin lotuak baizik; beharbada herrixehean askok berdin pentsatuko zuketzen. Higanauta den aldetik herriaren eta errege korteko jolasa, aisialdiak gogorki gaitzesten dituzu:

“Devocion Les jeux, farces, momeries, processions tapisseries et autres créations en defaict de dévotion sont des choses du tout profane come les danses des Israelites devant le veau d'or.” (R2. 89. eskuin).

«Jokuak, fartzak, maskarak, haurkeriak, mustrak, debozio aitzakian gauza oso profanoak dituzu. Urrezko txahalaren aurrean Israeldarrek ematen zituzten dantzen gisakoak.

Beste leku batean Donapaleun bere garaian ematen ziren galarrots edo zintzarrotsak epaitzen dituzu etnografiatzko albiste jakingarria emanaz. Horrek ez du erran nahi herritik jaso dituen erranak mespretxatzen dituela zeren euskara baitaki eta Etxeberri Ziburukoaren zati luzea ematen digularik halabeharrez jakin beharra. Bere anderea Nafarroa Behereko Joana Arbideko ere euskalduna genizun. Harekin ezkondu zen 1614ean. Entziklopedia hortan berari zuzendutako bi olerki luze daude frantsesez Andere euskaldun hori, agian, sarritan, euskal iturri izango zitzaion, bera urte pare bat herbesteratua egona zelako Biarnoko Jasses herrian; gero ere bere ikasketak Leskarren Biarnon egin zituela idazten baitu letargia kasu bat ikusi duela herri hortan ikasle zegoelarik 1601.an (R4, 135.orr.) Bestalde “Commentaires” etan idatzi duen bezala 1607. 21 urteekin, Gaskoniako Tolosa hirian zuzenbidean doktore igaro zen. Hogeitahamalau urteak zituzun Bela-k Zalgize hil zenean, eta balitekezu azken horrek, bera bezala protestantea, izanki, eragina ukan zuen Belarengan. Belak ordea zori hobexea izan zuen, ezen Zalgizen obra gehienak galdu baitziren, Oiherntek eskuratu atsotitzak izan ezik.

Hamazpigarren mendeko jende askoren gisa Jakes Belakoa arrazoinez eta sinesteez nahasitako gizona da. De Lancre kultura haundiko gizonak sinesten

duenean sorgin batek jauzi egin dezakeala Larrun goihenetik Donibane Lohitzuneko hondartzaraino makurrik gabe, halaber Belak sinsesten du begizkoan eta begizkoaren axolbean jartzeko kutunean. Eztira gure jakitunak animismotik hain moztuak: Frantziako Medicistar erregiñak egun guztiz astrologoari egunaren berri eskatzen dionean Eta Decartes ospetsuak holako sinesteak dituelarik, egun guztiz bere horoskopoa eragiten, baina Belari euskal atsotitzak ez zaizkio baliatzen holako bazter ideien argitzeko.

## Liburuaren xedea

**Nola** Lehen tomoan (R1) eta 19. orrian honela idatzi du, itzultzen dudana:

“Ceste besogne est come de sage femme a la faire naistre et vivre sous auspices de meilleurs théologiens, plus sages politiques que je ne suis. J’use de redites soit pour ce qu’un mesme discours contenant divers sens j’allègue en un endroit une résolution pour une intelligence et la réallègue en un autre sujet ou elle siet bien, jointes d’autres considérations. Je m’y sers aussy d’aucunes diccions et de mots, proverbes et refrains Latins Italiens, Basques, Gascons, Espagnols, etc., d’autant qu’à mon gré telles choses servent en la dite manière et avec plus d’energie, efficace, et utilité et que si elles estaient transcrites en autre langue” (R1. 19. orrian, ezker).

“Lan sail hau emagin batek sortzeko eta biziaratzekoaren antzekoa da. Nainen baino teologilari, politikari hobeen babespean jarriz. Errepikapenez baliatzen naiz, esaldi berdinak erran nahi asko har dezakelako, leku batean erabiliko dut ondorio baterako eta bestean beste gai baterako. Latin, italiera, euskara, gaskoniera, gaztelera eta beste hizkuntzetako esaera eta atsotitzez baliatzen naiz, baita hitz, erranmolde eta perpausez ere, nola eta nire ustez holako gauzak indar, eraginkortasun, erabilgarritasun gehiagorekin, zerbitzatzen diren, beste hizkuntzara, soilki itzuliak balira baino hobeki”.

**Zertarako.** Azken alearen azken lerrotan honela dio Bela-k:

“Aurrean sartu dudan nire luma kondairaren lan honen gatik hasarre gorri leudekenei erantzun nezaken gauza bakarra, hau besterik, nik oharrez eta erakaspenez eman Tablètes horien baino gehiago eta hobeki egin dezatela eta halkan balitz *secundum subjectam et materiam* diodalarik onar dezatela, otoi haien zerbitzari guztiz apala naizela”.

(1650.eko apirilaren 28.an urrendua).

## Noiz

Aski irakurri ondoan nor nahirik ikus dezake, bi alditan idatziak izan direla Tablètes-ak, esku berdineko izan arren idazkera eta luma ez direlako berdinak.

*Lehen idaztaldia*, hizki lodiz, larriz eta paperari dolu gabe eman da. Entziklopedia itxura argi du, hautatu hitzek ez dute bizpahirur orrialdetako aipamena baizik. Maiz idazleak bere egunetako gertaera bat kondatzean urteguna ematen digu, halaxen lehen alean 1645 agertzen da, beste leku batean “*Serviteurs*” kronikan kondatzen du zergatik Etxauzeko jauna urte bete hartan eta 1649.an preso dagoen eta idaztaldi eta hegatsaldi horren azkenean dio 1650.eko apirilaren 26.an bukatu duela bere bilduma. Idaztaldi hortan dira euskaraz, gaskoineraz, gaztelaniaz, gerkeraz eta hebreozko atsotitz gehienak agertzen, hasieran eran bezala idazten duelarik.

Bigarren idaztaldia hizki xehe, luma fin batez emana da eta hasierako xedetik apur bat urrunduz, gai bati buruzko orrialde osoak kopiatzen ditu, latinez eta frantsesez. Orrialde luze horiek, parrafo gabekoak, bere lehen idaztaldian tartekatzen ditu. Ia atsotizik eztago, 1660.eko liburuen zatiak kopiazten ditu eta hirurgarren alean 295.orrialdetan, urtegun berriena agertzen da, Lorraine herriko auzapez epailea aipatzen duenan, le 4 de juillet 1665. Azken egin horrengatik zuen CLEMENT-SIMON-ek idatzi 1665.ean amaitu zuela bilduma Bela jaunak.

## Egituraz

Aurretik erran bezala bi idazkera daude, orri neurri berdinetan emanak. Liburuen aipamenak ohar gisa lehen idaztaldian, kapitulu bakoitzaren azkenean ematen ditu, baina askotan ere ezkerreko eta eskubiko bazterretan, noizpeinka ere lerroen artean.

Bigarren idaztaldian dena garbiago da eta liburuen aipamenak, orrialde eta guzti, kopiatu edo aipatu zati bakoitzarentzat ezkerreko edota eskubi bazterrean garbiki emana agertzen da. Orotara, garai hartako idazkerekin erkatuz, aski irakur erreza da. Erran dezakegu inprimatzeko gerturik zegoela, ezpaita zirriborroa. Ortografiaren eta hizkuntzaren aldetik XVI.mendeko frantsesa darabilla hain zuzen mende haren azkenean baitzuen hizkuntza hori ikasi.

## Bibliografia

Bela-k aipatzen dituen liburu guztien bibliografia ematen du, bata hasieran idatzia alfabetoaren lerroan, eta bestea liburuak nahasian ematen dituenak. Azpimarra dezakegu ez duela Oihenarteren bilduma erabili, argitaratzekoa zena 1650.ean eta bere bilketakoak direla atsotitzak erakutsiko dugunez. Atsotitzak aztertu ondoren hortaz zerbait gehiago errango dugu.

Gazteleraz, latinezko, gaskoinerazko atsotitzak liburutatik hartuak ditu. Haren laurogei bat liburuen zerrendan asko erabiliko dituen gaskoinerazko *Ca-*

*tonet*, atsotizen bilduma et *Decaloga*. Latinez bi euskaldunen lanak aipatzen ditu Michaelis VERINI *poetae christiani de queror moribus disticha verum-duntur*, Tholosae, 1538, eta Martini IBARRAE cantabri. *Disticha moralia Catonis Romanicum prooepto in prosa orationis et dictis insignit septem sapientem Graeciae*. eta frantsesez irakurria Huarte-ren *Examen de ingenios*, asko erabiltzen. Moralista lana dagianaz gain, Duret, Montaignen dizsipulua darabilia, baita Pibrac-en olerki lauhoak ere. Gaztelaraz *El Guzman de Alfarache* por Mateo Aleman, 1599, eta *Theatro de los mayores principes del mundo*, por Fray Jayme Rebulosa, impreso en Barcelona, año 1605, eta atsotizentzat *Refranos castellanos glossados* Jeronimo Cortes, Zaragoza, 1638, Antonio de Guevara ren *Epistolas familiares de don Tunon de Guevara*, Obispo de Mondondo, predicador del Consejo del Rey, impres. por Juan de la Cuesta año 1628 *Mémoires* de Monsieur de Villeroy, Paris, 1623...

Beste liburu aipagarrienak hauexek dira. Duret *Du Thrésor de l'ystoire de l'origine des langues*, Verdun, 1635. eta idazle berdinarene *De la Sagesse du charron*, Paris, 1621. Dn Thomoe A. Kempis Canonici regularis ordinis Sti Augustini, *De imitatione Christi* libri quatuor impres. Lugdunum apud Joan Hugueton, an 1643. *Historia de las Antigüedades del Reyno de Navarra* por el padre Moret, natural de Pamplona, Chronica del mismo reyno impres. en Pamplona por Gaspar Martin, año 1602. Desbaratz, *Ystoire du diocèse de Bayone*, 1663. Olhagaray *Ystoire de Foix et de Navarre*, 1661.

## Nire irakurketa

Saiatu naiz duela chungarren urte honetan, frantses eruditoak baino hobekixeago egiten. Hortarako abisatzen zaituztet lau liburukiak Registre izenekin agertzen direla, R1, R2, R3, R4, sistema hori begiratuko dut.

Ez dira orrialdeak baina orriak zenbakiak beraz, orrialdeen bereizteko “ezker”, “eskuin” jarriko dut orriaren ondoan. Atsotitzak beren azentuekin ematen saiatuko naiz, beren grafiak gordez, eta batik bat, ingurumena, kontestua emanaz, eta itzuliz. Atsotitzak emango ditut obran agertzen diren ordenean eta azkenean baizik alfabetoaren lerroan.

Nahiz bi bider zehiarka irakurri ditudan bi mila eta bostehun orrialdeak, beharbada atsotitz bat edo beste eskapatu zait. Bestalde bizpahirur lekutan atsotitzei buruzko aipamenak edo euskarazko erran molde batzuk sartu ditut, hala nola, agertzen direnean, urtegunak ere.

## Bildu ditudan atsotitzak

Hemen hasten da atsotitzen bilketa, frantsesezko kontestua neronek euskarara itzultzen dudalarik. Mota guztietako oharrak azkenean egingo ditut, Be-

laren bilketaren balorapenarekin batean, baina aurretik diot atsotiz bat bizpahirur lekutan eta adierazi desberdinxkekin gertatuko dela idazleak abisatu gaituen bezala.

#### A.1. Nasaitasuna (Abondance) (R1, 23.orr. eskuin)

Nasaitasunak jendeari eragiten dizkio zernahi asmakuntza eta zernahi atsegin ematen horregatik dio euskaldunak, **Hobé da nequécia ezi ez soberania** erran nahi baitu soberakuntza baino hobe dela ezongi izatea.

#### A.2. Egitekoak (affaires) (R1, 44.orr. ezker)

Ez dezake jasan nire gogoak bere erabakien gatik tinko jar dadin non ez den dagokion egingaiak albiste eta agindu hoberik eman gabe, pozik egon arte, horregatik, jakitatezko gogoz azter dezan, burutik-buru, egitekoa **unde** euskaraz, **Eytzac hoúná hobiagáti**.

#### A.3. Arima (Ame) (R1, 73.orr. eskuin)

Gertatzen da gorputzez hurbilenik daudenak, sendimenduz urrunenak izatea **hinc** euskaldunak **Eliçatic hurranéna pharadusutic urrunéna**.

#### A.4. Adiskidantza (Amitié) (R1, 92 ezker)

Kasu eman behar da adiskidantza berri batek ez dezan zaharra alda, horregatik erromatarrek, aintzinetik Samnitarrekin hartu adiskidantza, ez zuten gaitzetsi nahi izan Kapuarren alde eta lehenen kaltetan **unde** euskaraz **Aurthen amore berriagáti eztuc utçiren çaharra**.

#### A.5. Maitasuna (Amour) (R1, 100.orr. ezker)

Maitasuna, sarritan, hiltzen eta pizten da. Arrazoinekin haur baten itxuran erakusten da eta euskaldunen arabera, **Criquetz eri, criquetz sendo**.

#### A.6. Jangalea (Appétit) (R1, 134.orr. ezker) (ikus A.9)

Jatekoaren aldatzeak jateko gogoak berotzen du eta on baldin bada besterik ez du eskatzen **Gossia bere jaqui**.

#### A.7. Eder (Beau) (R1. 184.orr. ezker) (ik. A.10, A.58)

Gorputz ederra daukanak arima ederra ere da errainara (nahiz batzutan besterik gertatzen den) **unde** euskaraz **Emazte édérrea bordéleco, guizon édérrea urkabéco** id est emakume ederra bordeleko anderea da eta gizon ederra urkabeko seinalaria.



## A.8. Beharra (Besoin) (R1, 192.orr ezker)

Besteekin bizi beharrak bestelan eduki ez dezakegun elkarganako urrikal-menera garamatza **unde** euskaraz **Beharrác çaharrá merkatura**.

## A.9. Jangalea (Besoin) (R1, 208.orr. eskuin) (ik. A.32)

Janari eta edari guztien neurria, beste atsegin eta saltsa guztiak bazter utzi-rik, gosearen betetzean izan behar **unde** euskaraz **Gossia bere jaqui** Horrela ez duk behar baino gehiago janen ez saltsa beharrik izanen.

## A.10. Putetxeak (bordels) (R1, 208 ezker)

Bordelak emakume ederrez betetzen dituk **unde** euskaraz **Emazte ederrac bordeléco**.

## A.11. Gorde, izkutatu (cacher) (R1, 224.orr. eskuin) (ik. A.24)

Ezta segeturik agertzen eztenik ez eta gauza izkaturik ezagutzen ez denik **unde** euskaraz **Konseillua sappharpéco / guero ere aguerrico**.

## A.12. Bidea (chemin) (R1, 277.orr. ezker)

Bide bakoitzak bere oztopoak **unde** euskaraz **Houná béré gaytçaréqui**.

## A.13. Elkarrekiko (commun) (R1, 328.orr. ezker)

Elkarrekiko ontasuna sarritan bazter utzia da **unde** euskaraz **Bidén berho chorien dago** edo.

A.14. **Bi etchétaço horac çaria gora**

## A.15. Aholkua (conseil) (R1, 359 orr. eskuin)

Egitekoetan gerta liteken galgarri guztieri ihesi egin nahi duenak ezer egin gabe egonen da **inde Bentura dadinac hartza / Eztadinac ez bartzta**.

## A.16. Aholku (conseil) (R1, 359.orr. ezker)

Gaitz hori esteiariak daukan sendimendu edo esperantza alferrean datza Holakoaz da abere batzuen gisa usain batzuk ezin jasaten dituztenak edo beste batzuz musikak haserretzen dituenak eta oraino besteez edozein baldintzetan nigar eragiten dietenak direnak **unde** euskaldunak **Azturu gaytzari houna húgu**.

## A.17. Eraikuntza (construccion) (R1, 394.orr. ezker)

Segun la diversidad de las naciones assi tuvieron en él dar diversas costumbres **unde** euskaraz **Herric béré légué / etchéc béré aztura**. Herri bakoitzak bere modua dauka eta etxe bakoizak bere patua.

## A.18. Hartzedunak (créanciers) (R2, 1.orr. eskuin)

Berdin Fernan Gonzalvez kapitain haundiaz zeinez dion euskaldunak **Ez-téguíala hounguiric gaytzic jin eztaguiá**.

## A.19. Ankertasuna (Cruauté) (R2, 18.orr. eskuin)

Jatorriz krudel direnek beren basakeria. ez dute txarrenengan, merezi dutenen gan egiten, baina gehienik jasan dutenen bizkar, euskaraz **Çoura berágo / Harra barnágo**.

## A.20. Nahikunde (désir) (R2, 56.orr. ezker) (ik. A.6, A.45, A.59)

Besteen borondatea eta egingaien gertatzea esku balute bezala, batzuk beren buruari hitzematzen dute nahi dutena, **unde** euskaldunak, **Boronthatiac cen-çúa gal**.

## A.21. Deabrua (démon) (ik. A.37)

Hala beharrunez esteiari izateak tristura sortzen du hortik euskaldunen atsotitza **Gabéac aharra**.

## A.22. Jainkoa (Dieu) (R2, 170.orr.)

Jainkoak eztu iñor sortarazten non ez dion lehenik bere egoeraren eta bere bizitzaren elikatzekoa ematen, **unde** (...) euskaldunak **Nour bere oguiaren gaytzuruaréqui sortcen da**.

## A.23. Jainkoa (Dieu)

Ospakizunen eta oparien jaiak Istraëlitek bezpera gauean hasten zituzten; hortan Eliza kiristikoak judaikoa jarraiki du, horrek esanerazten dio euskaldunari **Besta houína bezpératic**.

## A.24. Itzulinguru, gordetze (disimulation) (R2, 212.orr. ezker)

Itzulinguru guztiak (koselüak) denborarekin gaizkiari buruz jotzen dutenean, erabiltzalearen kostuz, agertzen dira, **Conseilluá sappharpéco guero éré aguerrizco**.

## A.25. Hizketatu (entretenir) (R2, 319 eskuin)

Batzuek nekez uzten dituzte gogoz gaindi hizketatzen dituztenak horrez euskaldunak dio **Náhi eta nagui**.

## A.26. Bekaizkeria (envie) (R2, 320 ezker) (A.33)

**Hinc, nour da hiré etsaya? Ene oficiocoá.** Zer nahi izanik ere hobe da higuinzaileez bekaiztua izatea ezen ez auzoez eta adiskideez nigarztatua.

## A.27. Urtzaina, doministikua (esternuement) (R2, 384.orr. eskuin)

Astakeria bat da erratea urtzain egiten duenari “zure zerbitzari” hobe da **proficiat**, euskaldunak **Houndaguiçula**.

## A.28. Gogoa (esprit) (R2, 364 ezker)

Batzutan balio gutikoenak zarata gehienik egiten du, **unde** euskaldunak, **Orgä gaixtoenac carrancáric handiéna**, erran nahi baita gurdi txarrena gutiago urinztatua delako bere burua, egoera onean dagoenak baino, entzunaraz-tenago duela. eta **Garcia, Garcia, gaixto batec eçagutcen din bercia**.

## A.29. Harridura (étonnement) (R2, 386.orr. eskuin) (A.45)

Ayes bon coeur en ton adversité, **Ez houn bati botz / ez gaytz bati hotz**.

## A.30. Arrotzak (Estrandgers) (R2, 391 eskuin)

Erretorak bizio zuzentzaile arruntak dira baina *euskarazko* atsotitzak dio “Ezta hon parropian jaio erretora, herrian, ez eta nausiarentzat ikuiluan sortu zaldi garainoa” (Ezta euskaraz emana Belak itzulia baizik).

## A.31. Iratzarria (Esveillé) (R2, 391.orr. ezker)

Nihil contenuit esuriens, **Gossia bera jaqui**.

## A.32. Ogia (pain) (R3, 35.orr. eskuin) (ikus. A.56, A.64)

Heure bertutetik eta heure ganik datozen gastuak baizik ez dituk onak, ziu-rrak eta iraunkorrek horrek euskaldunari erranarazten dio **Ekar badéçac oré-qui / ukénén duc gouréqui**. erran nahi baitu heurrekin ekartzen baduk, geu-reakin izango duk.

## A.33. Ahaide (parents) (R3, 70.orr. eskuin)

Bekaizkeria aginte, kargu, lanpide edo ogipide berdinekoen artean koka-tzen da, unde, euskaldunak. **Nor da hiré etsaya? Hire officicoá.**

## A.34. Mintzatzea (parler) (R3, 70.orr. eskuin)

Arruntean bakoitza gogoko duenaz mintzo da, **unde** euskaldunak **Horac noun miná han mihia**.

## A.35. Aihoak (passions) (R3, 86.orr. eskuin) (A.59)

Halan frutatako hartzen ditugu orstoak **unde** euskaldunak **Boronthatic cençua gal**.

## A.36. Gabezia (pauvreté) (R3, 96.orr. ezker)

Bakan dela bakea ogirik ez den etxean **unde** euskal zuhurtitza, **Gabiac ähärria**.

## A.37. Gurasoak (pères) (R3, 165 ezker) (ik. A.45, A.58)

Agian hoberenak izanen dira hoberenetarik sortuak eta euskaldunak dio **Acitic bihia eta çourétic ezpála** (gaskoinez de nature put lou bouc, sortzez usain dario akerrak).

**Egun 1648 martxoaren 2.an** (aujourd'hui 2 de mars 1648) (R3, 211.orr.)

## A.38. Lehenak (premier) (R3, 248.orr. ezker)

Muñoaren, zubiaren, itsasdarraren, mendate baten lehen hartzaileak etsaiari abantaila du (Behiak belardira doatzanean, lehenak aurrean) eta euskal atsotitzak **Lehénac bi éscu**. Israelen lehen jaio neskak sakratuak zirelako haien saindutasuna uzta guztietara hedatzen zen, lehenen eta osoaren batasunaren gatik hortaz dio euskaldunak zaharrenen alde **Lehénac bi escu**.

## A.39. Opariak, presentak (présants) (R3, 257.orr. ezker)

Badira ematen dutenak beste ontasunen erakartzeko. **Jaurico presentac escúa ondoan**.

## A.40. Opariak (présants) (R3, 257 ezker)

Zeren opariak maitasuna erakartzen duten **hinc** euskaldunak **Saintuéc éré olio náhi**.

## A.41. Handinahia (présomptueux) (R3, 258.orr. ezker)

Hala erraten da gutienik "urinzatu orgak du karranka handiena egiten (ik. A.30).

## A.42. Bedatsa, udaberria (printemps) (R3, 287.orr. ezker)

Orduan udari jarraitzen dio larrazkenak udaren gorria eztituz, gau zerenaren freskura hedatuz, baita tantakatzen duen ihintzekin eta ekartzen dituen euriekin haroaren beroa geldituz **unde** euskaldunak **Jon done Justi**, (itxuraldatze jaja da) / **hegalac bousti**.

## A.43. Auzia (proces) (R3, 296.orr. eskuin)

Porque los porfidiosos hazen el manto de los pleytos, **Auzia galgárri duçu / gatzé déno utçaçu.**

## A.44. Ekoizpen (produccion) (R3, 298.orr. ezker)

Ekoizpenek arruntki beren jatorria jarraikitzen, **Phicac gará gará / umiac hala hala, Otsoa nolaco / umia halaco**, halaber, **Çourétic ezpalá.**

## A.45. Joritasuna, senteria (prospérité) (R3, 289.orr. eskuin?)

Joritasunean apal izan eta iduritu behar da, **Ez houn bati botz / ez gaytz bati hotz** dio euskaldunak.

## A.46. Atsotitzak (proverbe) (R3, 290.orr. ezker)

«Ez da komeni beti atsotitzetan bizitzea».  
«Atsotitzak egiaren lehengusuak dirade».

## A.47. Azeria (renard) (R3, 389.orr. ezker)

Azeriaz esaten da, madarikatuago eta egitekoak hobekiago egiten dituela, **Çaldi maradikatuc, bilhoa leiñ**, batzuei hala ongi gertatzen zaie, bekaiztuak direnean.

## A.48. Atsedean (repos) (R3, 398.orr. eskuin)

Batzuek ezin dute gozatu ez eta jasan besteek goza dezaten eta hortaz euskaldunak dio **Ez horac çahia jan, ez oilloer utzy.**

## A.49. Aberats (riche) (R4, 11.orr. ezker)

Bere nasaitasunean ongi bizitzea (esatea) egia horren aldeko laudorio handiena da **unde** euskaldunak **Aberatsac oro çuhur.**

## A.50. Aberastasun (richesse) (R4, 21.orr. ezker)

Zorretan eta kontratuetan datzan aberastasuna ez da segurra hori ikusiz dio euskaldunak **Oré hoüna dühürü bilha daguiala**, erran nahi baitu heure on gutzia dirutan bilaka dadila.

## A.51. Aberastasun (richesse) (R4, 21.orr. eskuin)

Salerosleek aberats eritziak, izan ditezen hobe da ustea hamar mila ezkutuz aberats direla nahiz ehun baizik ez eduki ezen ez milaka eduki eta krediturik ez, horretaz (...) euskaraz **Dakoussanac gouré beztia eztaquique gouré beharra.**

**1649 (R.4. 69.orrían)**

A.52. Jakitea (savoir) (R4, 69.orr. ezker)

Ez dakigu non gerta gintezkean ez eta zer atzapar artean eror **unde** euskaldunak **Ezterragúla çoin hourétaric edanen dúgún** id est ez dezagula erran zein uretarik edanen dugun.

A.53. Badaki (sait) (R4, 69.orr..ezker)

Kuia ustelarekin entsalada onik ez, **unde** euskaraz. **Halzez matraz hounic ez, id est** Haltz oholek ez dute hanbat balio.

A.54. Elkariduri (semblable) (R4, 129.orr. eskuin)

Bakoitzak bere irudikoa dazagu **inde** euskaldunak **Garcia, Garcia, gaixto bátác, badiaçagu bercia**.

A.55. Berea (sien) (R4, 166.orr. ezker)

Gure meneko den ahalmena, baratzen zaizkigun indarretan datza eta gure esku dira, **inde, Ekar badeçac oréqui / ukénen duc gouréqui**.

A.56. Ondoko (successeur) (R4, 212.orr. ezker)

Formosoe occursus mulieris demonis arma parthorum tanquam dira sagitta, **hinc** euskaldunak **Guiçon edérra urkabéco, emazté ederrá bordeléco**.

A.57. Herri xehea, herenbesoa (le Tiers Etat) (R4, 264.orr. ezker)

Adarrak bere enborratik hartzen du sapa eta zakurrak sortzez usaina horregatik euskaldunak **Çourétic ezipalá, eta Phicac gará, gará, umiac hala hala, halaber Otsoa nolaco, umia halaco**.

A.58. Garaitua (vaincu) (R4, 306.orr. ezker)

Garaituari denak erasotzen, unde **Bago eroriala egur eguiten**.

A.59. Banagloria (vaine gloire) (R4, 306 eskuin)

Batzuk begi zoraturaz begiratzen dituzte aurrean ikusle direnak jakiteko beren zorionak zenbat jakile dituen, unde euskaldunak **Borondatéac cençua gal**.

A.60. Zahartasuna (vieillesse) (R4, 364.orr. eskuin)

**Çahar nendin / Çora nendin**, haatik ez da beti eta denekin egia.

## A.61. Bat (un) (R4, 390 ezker)

Halatan duintasun eta ontasunez goihenean dagoen gizona, hesi habe baten antzekoa da, kenduz geroz dena erortzen den gisa **unde** euskaldunak **Bat milaren eta ez mila baten**.

## A.62. Bidailari (voyageur) (R4, 410.orr.)

Altabada itzuliko denean edukiko duen maitasunaren gatik bere bihotza gogamen osoan egoten da, **Hinc** euskaldunak **Orhico choria, orhin laquet**. Txori bakoitzari bere kabia eder.

## A.. (R4, 411.orr.)

Etxeko probetxu da garaiz egin urteko janari bilketa; non eta hobeki ateratzen delako gauza guztietan ez garenean bortxatuak edukitzera, **unde** euskaraz **hinc Hil ouste gabean gagneco escoüa karioénic item ekar badeçac oréqui, ukénen duc gouréqui**. Azkenean adiskideen askatzeko bidea da.

Le 28 d'avril 1650 (**1650.ko apirilaren 28.an**) (R4, 427.orr. azken orrialdean).

**Aurkitu berri ditudan hamabiak**

1. **Aberatsac oro çuhur (A.50)**
2. **Auçia galgarri duçu, gazte déno utçaçu (A.44)**
3. **Bago eroriala, egur eguiten (A.58)**
4. **Beharrác çaharrá merkatúra (A.8)**
5. **Çoura berago, harra barnago (A.20)**
6. **Çourétic ezipalá (A.38, A.45, A.57)**
7. **Eytzac hoüna hobiagati (A.2)**
8. **Ezteguiala houngric, gaytzic jin eztaguiá (A.19)**
9. **Herric béré legué ethec beré aztura (A.18)**
10. **Horac noun miná, han mihia (A.35)**
11. **Nour bere oguiaren gaytzuruaréqui sortcen da (A.12)**
12. **Saintiec éré olio nahi (A.41)**

**Aurkitu ez ditudan zortziak**

Dakizueenez Clément-Simon-en denboratik honat Belaren liburu bat galdu da eta hor zeuden naski aurkitu ez ditudanak eta frantses idazleak ediren zituena. Non zitezkean asmatzeko —nahiz ezten aurkibiderik— idazleak sarritan darabiltzen **vide** delakoez baliatu naiz eta galdu diren gai batzu agertzen dira:

1. **Asek gose ezta kousa (uste dut “faim” kronikan zela)**

2. **Bicitce gaytzac hil nahia** (“morts” kronikan zegokean)
3. **Xazko ouhounac diren aurthencoen urkaçale** (“larrons” kronikan)
4. **Eltçoac ussuric gaytz** (non?)
5. **Errumera çouenac, lekuya gal** (non?)
6. **Hiladi, laydadi** (“morts” kronikan)
7. **Hobe da laydo laburra ecen ez damu luzea** (“louanges” kronikan)
8. **Min duyenac boulharra jo** (non?)

**Denetara 64. atsotitz daude, eta beste erranaira batzuk ere. Oihenarteren bildumarekin erkatuz uzta txikia, baina baliosa pentsamolde oso baten barnean daudelako eta batzuk ez ezagunak.**

## ONDORIOZ

Bere liburuaren sarreran ematen duen bibliografia iruzkin dezadan.

1. Oihenarte-ren Notitia baizik ez du aipatzen, maiz berritan errango dituela gauza berdinak bere buruaren zuritzeko, Oihenartek halaxen egiten duela bere obran gaineratuz.

2. Jesuistak kritikatu arren, Aita Moret-en obra goraiatzen du eta euskaldun ospetsuen artean Loiolako Eneko eta Xabierreko Frantses jartzen ditu. Calvin eta Leizarragaren testurik ia ez du erabiltzen. eta Huarterena bai oparoki.

3. Atsotitzen erdiak baino gehiago ez dira Oihenarten bildumetan agertzen, L. Mitxelenak hori erran arren; gainera Bela-k beti ematen ditu zubereraren fonetikaz Oihenartek erdizka edo osorik nafarreraz ematen dituelarik. Gainera bietan aurkitzen diren atsotitzak ere hitzez desberdin dira maiz. Hona adibideak.

J. Belak: **Aurthen amore berriagati, eztuc utçiren çaharra.**

A. Oihenartek: **Adiskide zaharra berriagatik eztutzala.** Asmo berdinentzat itxura desberdina.; Belarena biziago.

J. Belak: **Asek gose eztakusa.**

A. Oihenartek: **Aseak gosea eztakusque.** Belarena, mugagabean emana, orokorrage da.

J. Bela-k **Konseillua sappharpeco, guero éré aguerrizco / aguerrico.**

A. Oihenartek: **Koseilu caparpeco, ager daite azkeneco.** Hemen Oihenart herrikoia da, ezen orain ere zubereraz “koxelü” ez da aholkua, baina ahapeko segetua.

J. Bela-k **Errumera çouénac lekuya gal.**

A. Oihenartek: **Errumara joan zedinak, bere lekia gal zezan.** Hemen Bela motz eta trinkoago.



J. Belak: **Hiladi, laydadi.**

A. Oihenartek: **Hil adi, alaba ayte.** Trinkoena eta neurtua Belarena, naski.

J. Belak: **Jaurico presentac esküa ondoan.**

A. Oihenartek: **Jaureguico emaitzac eskea ondoan.** Herrikoiena, berriz Belarena.

J. Belak: **Elçoac ussuric gaytz.**

A. Oihenartek: **Eltzoz ere elhia gaytz.** Oihenartek “elhe” hitz zaharkitua darabila, Zuberoan erran nahi horrekin ez erabilia “saldo” erraten delako; “eli” hitzak “pare” eta “batzu” esan nahi du.

Belak, bilketa urteak kontutan hartuz 16 atsotitz ditu Zalgizekin berdinxka, halaber Oihenartenarekin 16 baina bi horienak nafarreraz; beste guztiak eta ia beti zubereraz (24) Belaren bereziak. Galdera lizateke biek ez ote duten Zalgize zaharragoaren bilduma ezagutu, ezen antzeko eta berdineko gehienak Zalgizen ere irakurtzen baitira (ikus azkenean alfabetoan eman indexa).

J. Belak: **Eytzac houna hobiagati.**

B. Zalgizek: **Utzac hona hobiagatic.** Belak darabila “eitzi” zubererazko aditz zaharra.

J. Belak: **Biçitce gaytzac hil nahia.**

B. Zalgizek: **Biçi gaitza hil dano.** Ez dute erran nahi berdina.

J. Belak: **Çoura berago / harra barnago.**

B. Zalgizek: **Hurra berago / harra barnago.** Hemen dakusagu biek ez zutela iturri berdinetik edan edota oihan berdinean etzirela ibili.

J. Belak: **Erkida berho / chorien dago.**

B. Zalgizek: **Erkida berho / choriendako.**

J. Belak: **Orgäric gaixtoénac carrancaric handiéna.**

B. Zalgizek: **Orgak charrago / carranca handiogo.** Bela zuberotarrago “Gaixto” hitzaren erabilera “txar” hitzaren ordeztu, Zuberoan ematen da.

Alabaina bere eskuidazkian urteguna sarritan ager ez baledi ere erakusteko Oihenarti eskuidazkian lehendu zitzaioela, erkatze horrek erakuts lezake bere laburrean Belak batzutan Zalgizek baino zuberotarrago eta zehatzago ematen dituela erran zaharrak. Belaren ekarpena beregisakoa dela, jakingarria eta sarritan berria.

Okerrean zegoen eta lasterregi idatzi zuen beraz L. Mitxelena zionean bilduma horren interesa bakarrik zubereraz izatean zegoela eta atsotitz horiek Oihenarten obran zeudela, alderantziz idatziko dugu hurbil erdiak ez tirela beste iñon aurkitzen eta Belaren askok jatorrizko itxura hobea dutela. Berrogeita hamasei atsotitzen bilduma horri gainera genezake Belaren lema **Ez nahi ahal dudana, ez ahal nahi dudana.**

#### 4. Hizkuntzaren aldetik

Dagoeneko kasu bakoitzarekin ikusi dugu Belaren zuberotar hiztegia, bere arkaismoekin: **biden: erdi, azturugaitza: malerusa dohakabea, kriketz: batbatean** (Basaburuan oraindik erabilia, krikez egin); **ore: heure; hurran: hüllan, hurbil, dühürü: dühülü, sos; hongui: hounki, ontsa, botz: pozik, Jon done Justi: San Justo** eta batikbat aditz trinkoen erabilera, geroztik Zuberoan hurbil galdua dena. Agian emazte manexinari entzunak baditu “nafar itxuran” bi esaldi, behin **Borondateac cençua gal** aldaera **Boronthatiac cençua gal** bi aldiz aurretik erabili duelarik. Gero **Gabeac aharra** behin “ea”rekin, eta **Gabiac aharra** beste behin “ia”rekin.

Fonetikan ü eta u bereizten ditu frantses grafiarekin emanaz “u” eta “ou” baina sudurkari denean “ü” idazten du: **hugü** eta bi puntuak ere ipintzen ditu “a”: **ähärra** eta i sudurkarietan = **mihia**. Susmo hori zuen L. Mitxelenak zionean (*u* lleva probablemente en el original algún digno diacrítico: esa -ü es nasal en suletino). Halaber **orgä** grafiak “ä” sudurkariarekin erakusten digu, hor galdu den “n” baten ondakina.

Belaren lana baliagarri zaiku zeren Zalgizek eta Oihenartek beren atsotitzak fonetikaz eta hiztegi nafartzeko ohitura baldin bazuten gure Sorhoetarrak zübererarena “xüxen” ematen du. Kontsonante aspiratuekin, hala nola **-ki** (-qui) atzizkia, ez **kin, -er, ez -eri**. Den bezala utzi dugulako ohartu behar da gure **“k” “qu”** edo **“c”** idazten duela (**eztaquique = eztakike, laquet: laket, es-cua: eskua**) berriz, gure **“kh”, “k”,** hala nola (**eztakoussa: eztakhusa, ekar: ekhar, uken: ukhen**). ez du ordea arazorik beste kontsonante zaharrekin eta “ph” agertzen da **“pharadusutic”, “th” boronthatiac, “lh” “bulhar, bilha”, “rh” “berho”, “Orhi”**.

Konsonanteen grafian euskal “esea” guk bezala “s” edo “ss” idazten du (**besta, eztakousa**), baina ez “zeda”: azken hau hitzen erditan eta azkenean guk bezala “z” (**ez, gaytz, ezpala, auzia, azitic**), baina hitzen hasieran “ze zedillardun” “ç” ematen du (**çoura, çahia**). Afrikatua “ch” idazten du (**choria**) eta frikatibua “x” (**xazko, gaixtoa**) zuberara zaharraren eta oraingoaren bereizitasuna delarik hitzen hasieran batzutan afrikatuak daudela.

Hain zehatz ez dena da gure idazleak darabilan azentu sistema, zeren batzutan bokal guztietan ipintzen ditu ahozkeraren zuripenik gabe baina askotan ere zubererazko azentu tonikoaren lekuan **Ez gaytz bati hotz, ez houn bati hotz**, edo **Emazte ederra bordeléco, guizon ederra urkabéco, Besta houna bezperatic Gabiac, ähärria** eta holako beste batzuk.

Gure irakurketarekin L. Mitxelenak eta biok zuzendu genituen huts gehienak Clément-Simonen hutsak zirela konturatu naiz, baina aitortu behar dut **eskua** dela irakurtzen ez **eskea.**; «es dudoso» zion Mitxelenak eta testurik gabean suposatu zuen Clément-Simonek “gauregui” irakurria **“ihaurequi”** zela, alta argiki irakur liteke **gouréqui.** eta holako bat edo beste.

## 5. Atsotitzen erabileraz euskal pentsalarien idazkietan

Gure idazlea garaiko filosofoa dugu, ez bakarrik ideien aldetik, idaz tan-kerarenetik ere. Filosofoek usu erabili ohi zituzten literatura baliapideak ditu. Jakes Belakoak, konparaketak, metaforak, metonimiak, alegoriak, sinboloak darabiltza eta guk hautatu gai honetan erran zaharrak.

Kanpotar atsotizentzat erran zahar bildumak eskupean zituen eta aipatzen ditu, baina erakutsi dugun bezala, euskarazkoak beregisakoak ditu, nahiz batzutan beste bildumetan agertu. Kontestu eta batzutan testu luze batek argitzen digu erran zaharra nola ulertu, euskara geroztik aldatuxe baita eta gure euskal kultura giroa ere ezpaita berdina. Nork daki Jon Done Justi Urriaren 14.ean dela orain?

Jakes Belakoak izan zuen euskaraz aintzineko bat. Agian hainbeste atsotitz erabiltzen ez zuenak, Axular, bere *Gero*-an eta Belak aipatzen du. Baina haren ondotik ikaslea izan zuen, eta ziur nago, orain, testuak erkatuz ikasle horrek begien aurrean zeukala Belaren lana. Jusef Egiategi da XVIII.mendean Belaren ondokoa. Nahiz ez zen protestantea Jusef, badu bere erakaslearen zehaztasuna, araztasuna, gogortasuna. Egiategik dauka, argitara gabea eta bi eskuidazki nahasietan zirriborro amaigabeen *Tablètes* horien antzekoa, *Mosde Etxeberriren gogamenak* bi hizkuntzetan idatzia. Aurretik Belaren eta Oihenarteren gorai-pamena eginaz, baita Oihenarteren zuhurtitzak kopiatuz. Erran nahi baita Jakes Belakoaren birilobaren liburutegian, lan egiten zuela Egiategik eskupean zeuzkala, Bela zaharraren obrak.

Jusef Egiategik liburu hori Joan Felipe Belakoaren liburutegian irakurri zuen, eta konturatu naiz euskaraz eman zituela “*Tablètes*” etan hartu anekdotak (Ortzaizeko erretorgoarena, Margarita eta Ana erreginagaien ametsa, ia hitzez hitz). Egiategiren hirugarren liburua argitaratu eztena ere Belaren antzera egi-na da, atsotitzak eta aipamenak bilduz eta erabiliz. Oihenarteren, Zalgizen eta Belaren ehundakako atsotizetarik kanpo besterik aurki litazke, baina XVIII.mendekoak XVII.mendekoak bezala eztu zerrenda hutsa ematen, zuhurtitzak filosofia egiteko erabiltzen baizik. Halaber biek Bela II. nak eta Egiategik Larramendiren hiztegia erabili zuten.

Egiategik Jakes Belakoak haina atsotitz darabila eta altxor bat dago hor, baina sekulan norbaitek argitaratzen balitu, otoi, lehenik ipiñi dezala eskuidazkiaren zein orrialdeetan dagoen zuhurtitza. Bigarrenik beren testuinguruekin eman ditzaten bildutako zuhurtitzak. Hamazazpigarren mendeko filosofo askok erran zaharrak erabiltzen zituzten, baina literatura baliapide horiek ez dira ohituretatik galdu, ezen aski da Eduardo Gil Beraren edozein libururen hartzea ikusteko erran zaharrak baduela gure gizaldian bere egitekoa. Atsotitzak oraindik literatura baliapideak izan litezke, eta politika esloganek baino zuhurtzia gehiago eduki. Oxala!

Ez zen agian Jakes Belakoa kultura ararteko ona izan, ez Axular bezain-beste, Euskal Herriak sinesmenean beste biderik hartu duelako baina etzen euskal kulturatik kanpo pauetar ikerlari harek dionaren alderantziz baizik. Naski higanauta zenaz gain eta aitonen seme, nahiz berria, euskal herrixehetik urrunxka zen. Gero ez dut uste sekulan jakinen dugunik hau kiristino kultura da, hau latinenetik, hau greziarenetik hartua, dagoeneko gure artzain eta laborariak, europar kultura baten barruan zeudelako eta euskal kultura harremanetaz bizitzen delako, beste kultura guztien gisa.

Egia da garai haietan ahozko herri kultura eta kultura jasoa eskolatua be-reizten hasia zela, baina euskal atsotitzek usu erakusten digute, frantses ber-dinekin ematen direnean, herrikoiago direla, erran nahi baita batzutan ezez-korrago, latzago euskaldunen ikuspegia, idazleak gogotik onartzen eta goraiatzten duena.

Hona nire lanaren azkena 1996ko Urriaren 12.an Jakes Belakoak zion eran: Hobeki eta gehiago egin dezatela ondokoek Halabiz.

### **Bildu atsotitzen indexa grafia berrian**

Transkribapen honekin ezin ditut denbora berean azentu tonikoak eta bokal sudurkariak markatzen, eta gorago aipatu eta aztertu Belaren arauekin abiatuz egin dut. Gizenean jarri ditut beste iñon aurkitu ez ditudanak, orainarte. A. nire aipamenak, G.C.S. Gustave Clément-Simon ek salbatuak.

**A.50.—Aberatsak oro zühür.**

(G.C.S.).—Asek gose eztakhusa (Oihenart).

A.4.—Aurthen amore berriagatik eztük utziren zaharra (Oihenart).

A.44.—**Auzia galgarri düzü, gazte deno ütazü.**

A.38.—**Azitik bihia eta zuretik ezpala.**

A.17.—**Aztürügaitzari huna hügü.**

A.58.—Bago eroriala egür egiten (Oihenart berdinxka).

A.61.—Bat milaren eta ez mila baten (Oihenart berdinxka).

A.8.—Beharrak zaharra merkhatura (Oihenart).

A.23.—**Besta huna bezperatik.**

A.14.—Biden berho, txorien dago. / Erkida, berho txorien dago (Zalgize).

A.15.—Bi etxetako horak, zaria gora (Oihenart).

(G.C.S.).—Bizitze gaitzak hil nahia.

A.21.—**Boronthatiak zentzüa gal.**

A.24.—Konseilüa sapharpeko, gero ere agerrizco (Oihenart).

A.5.—**Kriketz eri, kriketz sendo.**

A.51.—Dakusanak gure beztia, eztakike gure beharra.

A.2.—Eitzak huna hobiagati (Zalgize).

A.33.—**Ekhar badezak oreki, ükhenen dük gureki.**

- (G.C.S.).—Elzoak üsürik gaitz (Oihenart berdinxka).
- A.3.—Elizatik hürranena, pharadüsütik urrunena (Oihenart).
- A.7.—Emazte ederra bordeleko / gizon ederra ürkhabeke (Oihenart). (G.C.S.).—Errumera zoenak, leküia gal (Oihenart).
- A.49.—Ez horak zahia jan, ez olloer ützi (Zalgize, berdin).
- A.29.—**Ez hun bati botz, ez gaitz bati hotz.**
- **Ez nahi ahal düdana, ez ahal nahi düdana** (Belatarren lema).
- A.19.—**Eztegiala hungirik gaitzik jin eztagia(n).**
- A.52.—**Ezterrägüla zoin huretarik edan dügün.**
- A.21.—**Gabiak aharra.**
- A.55.—Garcia, Garcia. Gaixto batak diazagük berzia (Zalgize, Oihenart).
- A.6.—Gosia bere / bera jaki (Zalgize, Oihenart, berdin).
- A.54.—**Haltzez matraz hunik ez.**
- A.18.—Herrik bere lege, etxek bere aztura (Oihenart). (G.C.S.).—Hiladi / laidadi (Oihenart).
- A.62.—**Hil ustegabearen gañeko ezkoa kharioenik.** (G.C.S.).—**Hobe da laido labürra, ezen ez damü lüzea.**
- A.1.—**Hobe da nekezia ezi ez soberania.**
- A.12.—Huna bere gaitzareki (Zalgize).
- A.35.—Horak nun mina, han mihia (Zalgize).
- A.40.—Jauriko presentak esküa ondoan (Zalgize, Oihenart, berdin).
- A.43.—**Jondone busti, hegalak busti.**
- A.39.—Lehenak bi eskü (Zalgize). (G.C.S.).—**Min duienak bulharra jo.**
- A.25.—Nahi eta nagi (Oihenart, eta Vulgata *Vult et non vult, piger*).
- A.22.—**Nur bere oguiaren gaitzürüareki sortzen da.**
- A.26.—**Nur da hire etsaia? Ene ofiziokoa.**
- A.51.—**Ore huna dühürü bilha dakiala.**
- A.28.—Orga gaixtoenak, kharrankharik handiena (Zalgize, Oihenart).
- A.62.—Orhiko txoria, Orhin laket (Zalgize, Oihenart, berdin).
- A.45.—Otsoa nolako, ümia halako (Zalgize, Oihenart).
- A.45.—Phikak gara, gara, ümiak hala hala (Zalgize, Oihenart berdinxka).
- A.41.—**Saintüek ere olio nahi.** (G.C.S.).—Xazko uhuñak diren aurthenkoen ürkhazale (Zalgize, Oihenart).
- A.60.—Zahar nendin, zora nendin (Oihenart).
- A.48.—Zaldi maradikatuk bilhoa leñ (Zalgize, Oihenart, berdin).
- A.20.—Zura berago / harra barnago (Zalgize berdinxka).
- A.38.—Zuretik ezpala (Oihenart).